

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

397 zb.
www.getxo.eus

>> 2025eko Otsaila

Nabarmen^{tzekoak}

> Algortako GauEgun gaztelekua Kantxa Kirol Moda lokal zaharrera lekualdatuko da, udal merkatuaren eraikinera

- > Belaunaldien arteko antzerki eta dantza ikastaroak Romoko GureGune Gaztelekuan
- > Elkartasun auzolandegiak Latinoamerikan udan

Elkartasun auzolandegiak Latinoamerikan udan

Setem Hego Haizea GGKEak elkartasun auzolandegiak antolatuko ditu datorren udan Latinoamerikan, bidaiatzeko unean 21 urte beteak dituen edonori zuzenduta. Bat edo bi hilabeteko egonaldiak dira, datorren uztailan edo abuztuan. Bidaiatzeko beharrezkoa da hilaren 22an hasiko duen prestaketa prozesu bat egitea, non hasierako jardun-

naldi bat egingo den. Latinoamerikako lankidetzaren proiektu batean elkartrukea ezagutu, behatu eta bertatik ikastea du helburu. Izena emateko epea zabalik dago jada, eta hasierako jardunaldian parte hartzeko ere izena eman behar da datorren ostirala baino lehen, hilak 14. Informazio gehiago: <https://labur.eus/YbpPO>

Gurot lehiaketarako taldekako izenematea zabalik

Otsailaren 16ra arte zabalik izango da Gurot euskal galderari buruzko lehiaketan taldekako parte hartzeko izenematea. Bi mankomunitatek eta 14 udalerrik sustatutako aplikazioaren lehiaketan, horien artean Getxo, 12 eta 18 urte bitarteko gazteek, hiru lagunez osatutako taldeetan, hartu ahal izango dute parte, otsailaren 17tik martxoaren 23ra. Izenematea www.gurot.eus webgunean egin beharko dute, iaz parte hartu zutenek izan ezik,

horientzat inskripzioa indarrean baita. Getxoko hirukote irabazleak ZEID festibalerako bederatzi sarrera eta Bizkaiko finalean parte hartzea izango ditu, apirilaren 4an, San Mames estadioan (Bilbo). Herriko bigarren hirukoteari ZEID festibalerako bederatzi sarrera emango dizkiote.

Bizkaiko finalaren lehen saria Salouko Port Aventura bidaia, lojamendua eta sarrerak izango da; bigarrena Madrileko Warner parkerako bidaia, lojamendua eta sarrerak; hirugarrena Puy de Fou ikuskizunerako sarrerak eta lojamendua, eta laugarrena Athletic Museorako sarrerak. Informazioa: www.getxo.eus/eu/euskara/jovenes/gurot1



BEKAK SARIAK

* "Paradisu Zinema" beka, Iñigo Muguruza musikariaren oroimenez. Elkar Argitaletxeak, EHZ Festibalak eta Antxetak deitu dute musika lanak sustatzeko. Euskaraz sortutako eta jatorrizko musika-lanak grabatzeko proiektuak aurkeztu ahal izango dira, beste era batera egokitu ez direnak eta aurretik saritu edo argitaratu ez direnak. Beken deialdia diskotatu eta argitaratzeko da. Zenbatekoa: 10.000 €. Lanak aurkezteko epea: 2025/02/17. Informazio gehiago: <https://labur.eus/kPJdh>

* "Kultura Ondarea Gazte-Saria", Eusko Jaurlaritzak antolatutakoa 2024-2025 ikasturtean Euskal Kultura Ondarearen ezagutza zabaltzen hobekien laguntzen duten DBHko 3. eta 4. mailako, Lanbide Heziketako oinarriko heziketa-zikloetako 1. eta 2. mailako, Batxilergoko 1. mailako eta Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-zikloetako 1. mailako ikasleak saritzeko. 2025/03/21era arte. Informazioa: <https://labur.eus/QDIVB>

Romoko Gaztelekuaren programazioa Otsaila

Hilak 8, larunbata: IRTEERA: FUN PLAY PARK
Hilak 13, osteguna: ESKULANA: MARRAZKETA
Hilak 16, igandea: IKUSDKIZUNA: IMPROTXOU!
Hilak 18, asteartea: ESKULANA: PIXEL ART
Hilak 21 eta 28, ostirala: ESKULANA: ZERAMIKA
Hilak 22, larunbata: TAILERRA: GRAFFITI
Hilak 25, asteartea: TXAPELKETA: FUTBOLINA
Hilak 27, osteguna: TAILERRA: TRATU ON

GureGune gazteleku

Algortako Gaztelekuaren programazioa Otsaila

Hilak 8, larunbata: CRUMBLE COOKIES
Hilak 12, 19 eta 26, asteazkena: ANTZERKIA
Hilak 14, ostirala: TAILERRA: GRAFFITI
Hilak 20, osteguna: TAILERRA: SEXU HEZIKETA
Hilak 22, larunbata: IRTEERA: KNS ABENTURA
Hilak 27, osteguna: TAILERRA: TRATU ON
Hilak 28, ostirala: GAZTE TALENT

GauEgun gazteleku



Espazioan, irisgarritasunean eta diseinuan irabaziko du

Algortako GauEgun gazteleku Kantxa Kirol Moda lokal zaharrera lekualdatu da, udal merkatuaren eraikinera

Algortako GauEgun gazteleku, Urgull kalean kokatua, Kantxa Kirol Moda dendak hartzen zuen lokal zaharrera lekualdatu da, udal merkatuaren eraikinera, urtarileko ohiko osoko bilkuran jakinarazi zenez.

Gazteleku berria irisgarria izango da oinezkoentzako kale baten alboan egongo baita (Torrenen), Gazte Informazio Bulegoaren aurrean, eta integratuago egongo da hiri-ingurune bizitza sozialean eta kulturalean. Gainera, azalera handituko du (230 m²-tik 276 m²-ra) eta diseinu modernoagoa izango du;

bertan garatzeko sormena, parte-hartzea eta ikaskuntza sustatzen dituzten hainbat jarduerak, gazteen proposamenak dinamizatzeko eta entzuteko lan egingo duten profesionalen laguntzaz.

Gazteriako zinegotzi Mihaela Jilavuk nabarmendu duenez, "zerbitzuaren hobekuntza nabarmena da; izan ere, egungo Gazteleku, Urgulleko hirugarren solairuan dagoena, espazio itxia da, sarbidea eta ingurunea dinamizatzeko eta aprobetxatzeko aukerak mugatzen dituena. Horregatik, uste dugu kokapen berria, erretiroagatik hutsik dagoena, askoz onuragarriagoa


izango dela gazte getxotarrentzat, oinezkoen kale baten alboan egongo delako, eta, gainera, gazteen beharrei erantzuteko pentsatuta eta diseinatuta dagoelako, parte hartzea, aisialdi osasungarria eta bizikidetzaren sustatuz".

Espazio zabalagoak aukera gehiago ekarriko ditu: taileurretarako eta taldeko jardueretarako guneetatik hasita, atsedenerako eta aisialdirako eremuetaraino. Komunitate-mailako aisialdi hezitzaile publikorako udal gunea izango da, 11 eta 17 urte bitarteko nerabe guztientzat erreferente izan nahi duena.

Belaunaldien arteko antzerki eta dantza ikastaroak Romoko GureGune Gaztelekuan

Gizarte Kohesioaren arloko Gazteria eta Zahartze Aktiboko zerbitzuek belaunaldien arteko doako bi tailer antolatu dituzte 18 urtetik gorako pertsonen zuzenduta. Martxoan hasiko dira Romoko GureGune gaztelekuan.

Ekimen honen helburua da leku berean denboraren poderioz banandutako baina antzerkiak eta dantzak elkartutako belaunaldiak elkartzeko aukera eskaintzea, norberaren eta taldearen aberastasunari laguntzeko eta kohesio eta garapen komunitarioari aktiboki laguntzeko.



Antzerki ikastaroa hilabete bakoitzeko lehen eta hirugarren astelehenetan egingo da eta **dantza** ikastaroa (salsa eta bachata) hilabete bakoitzeko bigarren eta laugarren astelehenetan. Biak 18:00etatik 19:30era. Plazak mugatuak dira eta euskaraz

zein gaztelaniaz eman daitezke izena. Izen-emateak otsailaren 10etik aurrera egin ahal izango dira Romoko gaztelekuan, gaztebulegoa@getxo.eus helbide elektronikoaren bidez edo 688 88 09 85 telefonoaren bidez.

Antzerki eta zeramika tailer berriak



Algortako GauEgun gaztelekuak antzerki talde berri bat irekiko du 11 eta 17 urte bitarteko gazteentzat. Lehendik dagoena bezala, asteazkeno izango da 17:30etik 19:00etara. Besteak beste, emozioak, sormena, talde-lana eta desberdintasunarekiko errespetua landuko dituzte. Izen emateak doan: 688 84 03 56. Eta Romoko GureGune gaztelekuan, otsailaren 21ean, zeramika tailerra hasiko da doan. Ostiraletan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Informazioa eta izen-emateak: 635 70 65 26.